

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 92/2019 Foru Agindua, apirilaren 10ekoa, Oiongo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 10. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena**

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren tramitazioa Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2019ko urtarrilaren 22an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak indarreko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldaketa puntualari buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen Oiongo Udalarengandik, ingurumena ebaluatzeko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, baita hirigintza dokumentua ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

#### **Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko apirilaren 5ean eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/154 espedientea)**

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Oiongo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa puntual hau ur biltegi berriaren eremua sistema orokor bezala ezartzeko helburuaz idatzi da. Asmoa oraingo ur biltegia eraistea da, dituen akatsengatik eta egitura kalteengatik, eta beste bat eraikitzea inguruko zonan, zeina lurzoru urbanizaezintzat sailkaturik eta J.2.4. Baso intereseko zonatzat kalifikatuta baitago. Aldaketa puntual honekin, "sistema orokorra" kategoriaren barruan sartuko litzateke.

Halaber, aldaketa puntualarekin, errata bat zuzendu nahi da Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren ordenantzen testuan. 2.1.1.2. artikuluan, "Arau berezia EL-02 eremurako (bizitegi eremua, lehenengo zabalgunea)", behin eta berriz hau aipatzen denean:

1.2. Aldaketa puntualaren eremua:

Aldaketa puntualaren eremua bat dator Oiongo udal barrutiko 3. poligonoko 933 lurzatiko A landa azpilurzatiarekin (guztizko azalera, 29.424 m<sup>2</sup>), baina aldaketa puntualak gutxi gorabehera 2.600 m<sup>2</sup>tan bakarrik izango luke eragina.

Ondoko irudian, berdez nabarmenduta dago 933 lurzatiko A landa azpilurzatia; laranja kolorez, eraitsi nahi den oraingo hornikuntza biltegia, eta gorriz aldaketa puntualaren gutxi gorabeherako eremua. Azken honek "sistema orokorra" kalifikazioa jasoko luke, eta bertan gauzatuko litzateke hornikuntzarako biltegi berria:



### 1.3. Aztertutako alternatibak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

– “0” aukera (hautatua izan ez dena): Ezer ez egitean datza. Hortaz, ez litzateke eraikiko hornikuntzarako biltegi berria eta mantenduko litzateke oraingo biltegia, egiturazko arazo larriak dituen. Beraz, erabat beharrezkoa eta presakoa izango litzateke konpontze neurri zuzentzaileak hartzea, azpiegituraren hondamena ekiditeko.

– “1” aukera (aukeratutakoa): Proposamen honen asmoa hirigintza planeamendua egokitzea da, egoera txarrean dagoen oraingo hornikuntza biltegia eraistea eta oraingoaren antzeko edukiera duen bat eraikitzea ahalbideratzeko. Oraingo biltegiaren ondoan kokatzea planteatu da, era horretan orain dagoen eramate azpiegitura aprobetxatzeko. Aldaketa puntualaren eremua lurzoru urbanizaezinen barruan J.2.4. Baso intereseko zonatzat kalifikatuta egotetik “sistema orokorra” kategoriara pasatuko litzateke.

1. aukera hautatu da. Izan ere, sustatzaileak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, oraingo eta geroko beharrianetara egokiago moldatzeko aukera ematen du, Oiongo edateko ur hornikuntzari dagokionez. Beste okupazio batzuk ekiditen dira eta, beraz, bazterten

dira beste aukera batzuk, oraingo biltegitik urrunago kokatuak, eta ingurumen inpaktu handiagoa sortuko luketenak.

## 2. Kontsulta aldiaren laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko urtarrilaren 25ean eman zion hasiera eragindako administrazio publikoak eta interesa duten pertsonak kontsultatzeko aldiari, prozedura arautuari jarraituz. Lauki honetan, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Oiongo Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/154 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean dago jasota):

- Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi du aldaketa honen gaia den lurzatian orain arte ez dagoela hondakin edo egitura arkeologikoak daudelako frogarik. Edonola ere, berehalakoan Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari jakinarazi beharko zaio aipatutako lurzatietan egin daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko.
- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena egin du, zeinean hau adierazten baitu: "Proposatutako aldaketak eragiten dion eremuan ez dago historia eta kultura balioarengatik babestutako elementu edo higiezinik eta, hortaz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik, ez dago inolako eragozpenik hura izapidetzeko".

- URA – Uraren Agentziak txosten bat prestatu eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitzen joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoarekin bat etorriz.

- Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten du aldaketa puntualaren esparruan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, eta hor, ondoren laburbiltzen diren zenbait kontu aipatzen ditu:

1. "Proiektatutako eraikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak "mendia" kategorian, "basoa-mendi barbana" azpikategorian katalogatutako lurzoruan kokatzen da. Plan hori irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onetsi zen behin betikoz"

2. Nekazaritza eta Basozaintzako LPS horretako 62. artikulua dioenaren arabera, proiektaturiko ekintza ("Izaera lineala ez duten A motako zerbitzuen instalazio teknikoak") onargarria da "basoa-mendi barbana" kategorietan, baina nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa gauzatu behar da (SGEEP).

3. "Kontuan izanik SGEEPren emaitza, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 10. aldaketa puntual honen onespentetik eratorritako inpaktua nekazaritzako lehen produkzioarekin bateragarritzat ematen da". Hala ere, adierazten da egokia dela zehazki kuantifikatzea aldaketa honek eragina izango duen Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko kategoria bakoitzaren azalera.

4. Erantsita doa Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak egindako txostena, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan jasotakoan aldaketak duen eraginaren ingurukoa. Dekretu horren bidez, kultura ondasun kalifikatzen da, monumentu-multzo kategoriarekin, Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala. Erantsitako txostenak ondorioztatzen du ez dagoela etxolarik, etxolatxoric edo mahasti txabolarik, ez eta terraza edo labore mailadirik ere, dekretu horretan babesten denik.

5. Erantsita doa Mendi Zerbitzuak egindako txostena, zeinean aurrekarien azalpen luzea egiten baita eragina jasan dezakeen eremuan eta hurbileko ingurunean egindako ekintzei buruz, eskualde osoaren mailan baso eremuen babesa defendatuz.

Azaltzen da eragindako lursailen zati bat Oiongo Udalak eta Arabako Foru Aldundiak ezarritako "60. basoberritze partzuergoa"ren barruan dagoela. Horri buruz, ondorioztatzen da egokiro frogatu behar dela eragindako eremua aipatutako basoberritze partzuergotik kanpo uzteak erakunde jabearentzat berarentzat duen beharra edo interesa.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, "Erakunde honek ez dauka aipatutako kokalekuetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin den berririk; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan". Era berean, honela dio: "kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez"

3. Aldaketa puntualaren ingurumen inpaktuen deskripzioa.

Egokitzen jotzen da jardunaren justifikazioa, kontuan hartuz ur biltegi berriak Oiongo biztanleentzat duen garrantzia eta interes publikoa eta oraingo aurkitzen den narriadura egoera. Horrez gainera, egokitzen ematen da egitura berria ezartzeko aukeratutako kokalekua, daitezkeen aukera edo alternatiben artean ingurumen aldetik hoberena iritzita, orain dagoen biltegiarekin mugakide dagoelako, eta muinoaren eta hura dagoen 933 lursailaren eremu osoko alderik narriatuena delako.

Aldaketa puntuaren ingurumen inpakturik handienak landaretzan eta paisaian sortuko lirateke. Inpaktu moderatuak dira, arindu litezkeenak ingurumen txosten estrategiko honetan adierazten diren neurriak hartuz gero. Gaur egun, aldaketa puntualaren eremua batez ere Alepo

pinuz (*Pinus halepensis*) eta artez (*Quercus ilex rotundifolia*) basoberritutako zona batean dago. Horiez gainera, landare ezpaindun usaintsuak ere badaude, haien artean erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), izpilikua (*Lavandula latifolia*) eta ezkaia (*Thymus sp.*) nabarmentzen direla. Aldaketa puntualak berekin ekarriko du azal dutako landaredia deuseztatzea gutxi gorabehera 2.600 metro koadroko eremu batean.

Aurreikusita dago biltegi berria oraingo biltegia baino pixka bat garaiera gutxiagoko zona batean kokatzea; hala ere, haren tamaina eta ezaugarriak dituen azpiegitura batek ikusizko inpaktu handia sortzen du eta, arrazoi horrengatik, egokia izango da azpiegitura berria paisajearen integrazteko neurriak ezartzea.

Biltegi berri bat eraikitzeko jardunak, aldaketa puntualak berekin dakartzanak, ingurumenean integrazteko neurriez gainera, beharrezkoa izango da konpentsazio neurriak hartzea egituraren okupazioak eragindakoaren azalera bereko zona bat lehengoratzeko, basoberritze jardunak eginez hurbileko eremu degradatu batean, eta eragina jasan duenaren azalera berdinarekin. Egokitze jotzen da jardun horiek Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuarekin koordinatzea.

Horrez gainera, garrantzitsua da, paisaiaren eta ingurumen integrazioaren aldetik, biltegi zaharrak gaur egun hartzen duen eremua lehengoratzeko eta paisaian integratzea, landaretzaz inguratutako gainalde batean baitago. Hortaz, garrantzi handikoa izango da, ondoren, zehazkiago jakinda zein egoeratan geratu den lurra lehengo biltegia eraitsi eta gero, lehengo biltegiak hartzen zuen eremu osoa eta bere ingurune hurbilena integrazteko neurriak zehaztea eta hartzea.

Biltegi berriaren eremuan nahiz lehengoak okupatutako eremuan, bai eta eragindako baso arloa lehengoratzeko edo konpentsatzeko aldean ere (2.600 m<sup>2</sup>), egin beharreko jardunen multzoa zehaztu beharko da lehengoratzeko eta paisaian integrazteko proiektu batean, zeina aurkeztu beharko baitzaio Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organo eskudunari.

Aipatzekoa da, baita ere, aldaketa puntualaren eremu guztia uhalde enararen interes bereziko gunea dela (uhalde enara, *Riparia riparia*), zeina espezie "kalteberatzat" jo baita Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan, eta bere kudeaketa plana baitu (martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretua).

#### 4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak.

Ingurumen dokumentu estrategikoan "aldaketa puntualaren ingurumen jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena"ri buruzko atalean, ingurumen integrazioarako neurri multzo bat jasotzen dira. Neurri horiek, nagusiki, bideratuta daude azpiegitura hidraulikoaren eraikuntzan ingurumen eraginak ahalik eta gehien murrizten dituzten materialak erabiltzera (energia aurrezteko, hondakin gutxiago sortu eta baliabide gutxiago gastatzen duten materialak erabiltzea, etab.). Neurri horiek "Oiongo hiri antolamendurako plan orokorraren 10. aldaketa puntuala"ren hirigintza dokumentuan jasotzeaz gainera, egokitze jotzen da ondoko zuzentze neurri hauek barnean hartzea, horiek guztiak delako aldaketa puntualaren garapenak sortzen dituen eraginak gutxitzera zuzenduak:

– Ur biltegi berria eta horrek dakartzan instalazio lotuak halako moduan eraikiko dira non ez diren inguruneko eraikuntza tradizionalerako diskordanteak izango. Horretarako, kriptikoak diren eta erraz integratu ahal diren materialak erabiliko dira. Kanpoko fatxadak kolore kriptiko batez eta mate akaberarekin pintatuko dira, lurretik ez bereizteko.

– Biltegi berria eraiki eta dagoen biltegia eraitsi ondoren, eta, beraz, eragindako ingurunea geratzen den egoera hobeto ezagutuz, jardun eremu osoan ingurumena lehengoratzeko eta paisaian integrazteko proiektu bat idatzi beharko da. Proiektu horretan, ingurumen zuzenketa integrazioko neurriak jasoko dira, bai biltegi berriaren ingurunerako, bai biltegi zaharrak hartzen duen eremurako, lurra birmoldatuz eta landaredi autoktonoa lehengoratzeko landaketak eginez. Era berean, proiektuaren barruan beharrezko neurriak jasoko dira egin beharreko lur mugimenduen eragina jasango duen zona basoberrituaren 2.600 m<sup>2</sup>ko azalaren ingurumen konpentsazioa egiteko. Proiektu hori Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoari aurkeztuko zaio, balioesteko eta onesteko.



– Biltegi berria eraikitzeko eta haren ingurunerako proposatutako lekuan, landare lurrari dagozkion horizonteak era selektiboan kenduko dira handik, eta ahal dela berehala birbanatuko dira edo, ezin bada, metatu egingo dira aldundi honetako ingurumeneko organoak baimentzen duen lursailean. Landare lur hori obrak eragindako eta txosten honetako goragoko paragrafoetan deskribatutako gainazaletan landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

– Mailegu zonak edo hondakindegia erabiltzeko, ingurumen organoaren aurretiazko baimena jaso beharko da, modu horretan kokalekuen egokitasuna ebaluatzeko eta ingurumenaren gaineko eraginak arindu eta zuzenduko dituzten lehengoratze neurriak ezartzeko.

– Oiongo HAPOaren aldaketa puntuala garatzeko jarduerak ekar ditzaketen eraispen eta eraikuntza obrak gauzatzeko aldundi, ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitartzeko bestelako sistemak gaitu beharko dira; galarazita egongo da erabilitakoak isurtzea, eta baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sor daitezkeen hormigoizko hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakin degi edo zabortegei baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

– Ez da zerbitzugunerik, makineria parkerik edo produktu kutsagarriak gordetzeko gunerik ezarri behar ingurumen sentzibilitate handieneko zonetan, ezta ibaien eta erreken ingurunean ere.

– Dauden bideak jardun eremuetara heltzeko bide moduan erabiliko dira, bai hornikuntzarako oraingo biltegia eraisteko, bai berria eraikitzeko ere.

– Uhalde enara (*Riparia riparia*) kudeatzeko planean jasotako zehaztapenak errespetatu beharko dira. Plan hori Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretuaren bidez onartu zen eta 2000ko 73. zenbakidun ALHAOn argitaratu zen, martxoaren 27koan.

– Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

– Egokitzen jotzen da sustatzaileak eta foru aldundi honetako Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak modu koordinatuan garatu beharreko ingurumen arloko jarraipen lana egitea, eraikuntza fasean zehar, aplikatutako ingurumena zaharberritzeko neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna jakiteko eta ebaluatzeko, eta gabeziak gertatuz gero, horiek zuzentzeko. Horri dagokionez, jarduketak bukatu ostean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete direla egiaztatzeko.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehen a. Oiongo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 10. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematea.

Bigarren a. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin, ingurumen ebaluazioari buruzkoarekin, bat etorritik, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarren a. Ingurumen txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 10a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**